

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernu Irekiaren atariak Nafarroako tokiko erakundeen aurrekontuak eta kontuak argitaratzen ditu

Udalerrien, kontzejuen eta udalerrri-elkarteen inguruko informazioa datu irekiak bezala eskaintzen da

Osteguna, 2018.eko martxoak 1

Gobernua Irekiaren atariak Nafarroako toki-erakundeen aurrekontuak eta kontuak argitaratzen ditu; beraz, udalerrien, kontzejuen eta udalerrri-elkarteen informazioa datu irekiak bezala eskaintzen da.

Orrialdea [gazteleraz](#) zein [euskaraz](#) erabil daiteke. Helburua da gure toki-erakundeen aurrekontuei eta kontuei buruzko gardentasun-printzipioa betetzea; hots, udalerrietakoa, kontzejuetakoa eta udalerrri-elkarteetakoa.

Datuak eskuratzeko, tokiko erakundea hautatu daiteke Nafarroako mapan edota horren izena idatzi izenez bilatzeko inprimakian. Modu horretan, IDECALera sartzen da (Toki Administrazioaren Kontabilitate Espedienteen Datuak Trukatzea); alegia, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiari kontabilitate-espedienteak emateko erakundeek erabiltzen duten programara.

Onartutako azken aurrekontuak ez ezik, tokiko erakundeen azken 10 ekitalditako kontuak ere kontsulta ditzakete herritarrek.

Emandako kontabilitate-datuak

Honako kontabilitate-datuak ematen dira: sarrerak eta gastuak kapitulu ekonomikoen arabera, hau da, izaera ekonomikoa kontuan hartuta (“zertan lortzen den sarrera edo zertan gastatzen den”); gastuak kapituluka eta funtzio-multzoaren arabera, hots, izaera ekonomikoa kontuan hartzeaz gain, gastuen helburuari erantzuten diotenak (“zertarako gastatzen da”); eta aurrekontu-emaizta, sarreren eta gastuen arteko aldea bezala definitua.

Aurrekontuei eta kontuei buruzko informazioa tokiko erakundeak espedienteak IDECAL programan jartzean erabili ahal izango da.